

Abarrak

Buridango astoarena

Gose eta egarri izaki, distantzia berera zituen eskuin-ezker belarra eta ura. Jana eta edana neurri bereko premia ziren Buridango astoarentzat eta alde batera ala bestera egiten asmatu ez zuenez, kioto geratu eta gosez hil zen. Aurtengo Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko epaimahaiak ere antzeko zerbait egin duela iruditzen zait: asko nabarmendu den filmik ez zegoen eta lehentasunak ezarri ezinda, inori gustatu ez zaion erabakia hartu du.

Emakumezko aktore onenaren sariak izan dute harrera on xamarra: Melissa Leok *Frozen river*-en eta Tsilla Cheltonek *Pandorarin kutusu*-n egindako lanak merezi zuten. Gainontzean azken film hori urrezko maskorarekin saritzeak ez tul txiki bat eta kilker hotsa ukan zuen arrapostu prentsako kideen artean; antzeko zerbait esan liteke Oscar Martinezek jaso duen aktore onenaren zilarrezko maskorraz ere: tuju-tuju; kir-kir. Michael Winterbottomi eman dioten zuzendari onenaren sariak txistuak jaso zituen: esango da Zinemaldiari dion fideltasunak izango duela zerikusirik sarian; ikusle honek berriz, *Genova* gustuko izan zuen.



Zuzendariaren lanak txaloren bat merezi zuela uste dut, tamainan, hori bai, ez baita britainiarraren onena ere.

Makhmalbaf familiak epaimahaiaren beste sari bat eraman du, Samiraren *Asbe du-pa* lanarekin, nahiz eta saria emateko arrazoia –umeek gaur egungo munduan dituzten arazoekin engaiamendua, edo horrelako zerbait– harrigarria iruditu zaidan: Hanaren iazko *Buda az sharm foru rikht* lanean bezala, umeak gizarte osoaren metafora dira pelikulan. Hori ez ikus-teko begimotza behar da izan.

Jaime Rosalesen *Tiro bat buruan*-ek berriz, nazioar-teko kritikariaren Fipresci saria irabazi du. Eta horra txu-txumutxua: antza denez kritikari espainiar bakar batek ere ez du bere alde bozkatu. Politikak ez duela zerikusirik? Garbi dago: asto guztiak ez dira Buridangoak.

GORKA BEREZIARTUA

Ekialdearen garrasia

Zabaltegi sari nagusia, Zuzendari Berrien Altadis Saria, Cao Baoping txinatarrak eskuratu du, *Li mi de cai xiang* filmagatik. Hain zuzen, edizio batzuetatik hona nabaria da Ekialdeko zinemagintzak mendebaldar-ron artean piztu duen interesa. Aurten, zinema japoniar beltzak sail oso bat hartu du eta Zabaltegin bertan, Indiako bezalako industria zinematografiko indartsua-ren arrastorik izan ez dugun arren, 36 pelikuletatik sei Txinako edo Japoniako ekoizpenak izan dira.

Primeran iruditu zaigu, deiarar betean datorrelako Asiako zinema, indartsu, barruak askatu nahian. Asko dute kontatzeko, tradizioak hainbesteko pisua duen herrialdeotan jasaten ari diren eraldaketa handia baita azken urteetan. Mundua Ekialdean esnatzen da, Ekialdean jaiki, eta gu lo gauden bitartean, bizitzaz betetzen dira Shangai, Tokio, Hong Kong, Kioto... Pantailan liluratu egiten gaituzte toki horietako neoizko argi deigarriek, trafikoko jasanekin, karaokeak, amaierarik gabeko arroz-soroek, arte martzialek, detailerik txikienarenganako arretak...

Baina topikoez harago, zein kezka, arazo eta zalantza dituzten erakutsi digute Zinemaldiko lan horiek.



Belaunaldi desberdinen talka kultural bortitza, familiar-teko harremanak eta komunikazioa (edo komunikazio eza), lanaren eta maila sozialaren garrantzia, lanetik erretiratzeak gizon japoniarrei dakarkien hondamendia, emakumeen papera gizartean eta familian, sentimenduak adierazteko zailtasunak, heriotza, eredu kapitalistak komunismoan eragindako desorientazioa...

Finean, gai unibertsalak eta berezkoak jorratu dituzte, edozein herrialdeko zinematografiaren antzera. Batzuetan modu orijinal eta berritzailean, estetika eta erritmo finkoagoekin bestetan. Baina hango ohituren eta gizartearen isla diren heinean, aberasgarriak zaizki-gu, egungo mundu globalizatu eta txiki honetan. Zabaltegi atea gero eta zabalagoa da eta proposamen anitzagoak dakartzkigu. Eskertzekoa da.

MIKEL GARCIA